



Donostia City Council
Ayuntamiento de San Sebastián



**“HAURTZAROAK LOTURIK”
ADIERAZPENA**

**Donostia City Council
Human Rights Commission
Batzorde Berezia**

*Bi mila eta bederatziko azaroaren 20an
etorriko dira 20 urte Nazio Batuek “Haurren
Eskubideei buruzko Hitzarmena” izenpetu
zutela.*

Azaroaren 20an izango dira 20 urte Nazio Batuen Biltzar Nagusiak “Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena” onartu zuela. Hitzarmen bat, munduak haurrekiko zuen harremana zuztarretik aldatu zuena eta beste marka bat ere lortu zuena, hori adina berretsi den Giza Eskubideen gaineko hitzarmen nazioartekorik ez baita izan besterik. Hala, eraldaketa borondateari eta konpromiso kolektiboari esker, pertsona, subjektu eskubidedun, izatearen duintasuna eman zien hitzarmenak haurrei, haur guztiei, arraza, sinesmena, sexua, sorlekua nahiz gizarte jatorria goiti-beheitit. Hitzarmenari esker, haurtzaroaren biziraupena eta garapena, behar morala izateaz gainera, behar legal unibertsala izatea ere lortu zen.

**DECLARACIÓN
“UNIDAS/OS POR LA INFANCIA”**

**Comisión Especial de Derechos Humanos
del
Ayuntamiento de San Sebastián**

*El 20 de noviembre de 2009, la “Convención
sobre los Derechos del Niño”, (Naciones
Unidas, 1989) cumple 20 años*

El día 20 de noviembre conmemoramos el vigésimo aniversario de la aprobación por la Asamblea General de las Naciones Unidas de la “Convención sobre los Derechos del Niño”, el tratado internacional de Derecho Humanos más ratificado de la historia que cambió radicalmente la relación del mundo con la infancia. Fruto de una voluntad transformadora y de un compromiso colectivo, confirió a los niños y niñas la dignidad de ser personas, sujetos de derechos, sin distinción de raza, credo, sexo, lugar de nacimiento u origen social. Con ello, se consiguió que la supervivencia y desarrollo de la infancia fueran a partir de entonces, además de un deber moral, una obligación legal de carácter universal.



Donostia City Council
Ayuntamiento de San Sebastián



Baina, aurrerapen handiak izan diren arren, ikusten dugu oraindik ere, hogeit urte joan eta gero, aurrerapena ez dela denengana iritsi. Haurren eta nerabeen eskubideak bermatu gabe jarraitzen dute munduko toki asko eta askotan. Egunean hogeita bost mila haur baino gehiago hiltzen dira oraindik ere, oso erraz ekiditeko moduko arrazoiengatik. Bide luzea geratzen zaigu, zalantzak gabe, eta munduan diren haur guzti-guztien bizimodu aldatzeko erronkak ere izugarri handiak dira, baina ez dira ezinezkoak.

Guk, Donostiako gizartearren ordezkariook, Giza Eskubideen Batzorde Berezian bildurik, hitz ematen dugu gure ahalegin eta borondate politikoa jarri eta erantzukizun partekatu bat hartuko dugula munduko haurrekin, batez ere defentsarik gutxien dutenekin eta pobretuenekin. Era beran, dei egiten diegu donostiar guztiei denon ahalegin horretan parte har dezaten, munduko ume guztientzat aukeraz beteriko bizitza izatea lortu dezagun.

Gaur den egunean, bata bestearen baitan dagoen mundu honetan, gizarte baten aurrerapena ez da dena delako gizartea duen aberastasun ekonomikoaren bidez neurtzen, baizik eta, batez ere, gizarte horrek dituen oinarri eta balioen bidez, bizimodu duin bat izateko aukeren, herritaren partaidetza ahalmenen, askatasun zibil eta politikoen eta haurren ongizatearen bidez.

Aunque se han producido claros avances, hoy, dos décadas después, constatamos que a lo largo de estos años el progreso no ha llegado a todos y todas. Los derechos de la infancia y adolescencia siguen sin estar garantizados en gran parte del mundo. En la actualidad, todavía más de veinticinco mil niños mueren cada día por causas fácilmente prevenibles. El camino por recorrer es largo y los retos que tenemos delante para transformar la vida de todos y cada uno de los niños y niñas del mundo son enormes, pero son posibles.

Nosotros y nosotras, representantes de la sociedad donostiarra y miembros de la Comisión Especial de Derechos Humanos del Ayuntamiento de San Sebastián comprometemos nuestros esfuerzos y voluntad política, asumiendo una responsabilidad compartida, con la infancia del mundo, en especial con la más vulnerable y más empobrecida. Hacemos un llamamiento a toda la ciudadanía de San Sebastián para contribuir a este esfuerzo conjunto con el fin de lograr una vida de oportunidades a todos los niños y niñas del mundo.

Hoy, más que nunca, en un mundo interdependiente y global, el progreso de una sociedad no sólo se mide por su riqueza económica, sino especialmente por los principios y valores en los que ésta se asienta, es decir, por las oportunidades de obtener una vida digna, por la capacidad de participación de su ciudadanía, por las libertades civiles y políticas, y por el bienestar de sus niños y niñas.



Horregatik, adierazpen hau bitarteko dela, Donostiako Udalak ere bat egiten du “Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren” hogeigarren urteurrena ospatzeko ekitaldiekin, eta “Haartzaroak loturik” jotzen du bere burua.

Donostian, 2009ko azaroaren 12an

Por ello, con esta declaración, el Ayuntamiento de San Sebastián se une a los actos de conmemoración del vigésimo aniversario de la “Convención sobre los Derechos del Niño” y se declara “Unido por la Infancia”.

San Sebastián, a 12 de noviembre de 2009

Odón Elorza
Alcalde

Maravillas Dafauce
PSE-EE

José Luis Arrue
PP

Xabier Ezeizabarrena
PNV-EAJ

Ainhoa Beola
Aralar-Alternativa

Ricardo Burutáran
EA-Mixto